

BIZKAIERAZKO TESTU BERRI BAT (1778)

Frantzisko ONDARRA

Hemen argitara ematen dugun testu hau beste 18 testuren artean lehenengoa da, denak 1778. eta 1792. urteen bitartean izan zirela idatziak. Horiek baino askoz gehiago prestatu zituen egileak, azkenekoan honako hau irakurtzen bait dugu: «Platica 111». Erabiltzen duen papera, gutxi gora behera, 215 mm. luze eta 155 mm. zabal da ezagutzera ematen dugun sermoi honetan. Sei orriko paper multzoa da, orriak hari zuriz josirik daudela.

Ur marketan, besteak beste, hau ikusten dugu: hiru zirkulu bata bestearen gainean ipinirik eta goikoaren gainean gurutze bat kokaturik. Beste gurutze bat goiko zirkuluaren barruan, eta bihotz (?) bana beste bi zirkuluetan. Zirkuluena ezker-eskuin esku antzeko marrazkiak ageri dira, eta hauen azpian FIN ezkerreko aldean eta 1776 eskubikoan.

NOR, NON ETA NOIZ

«Fr. Miguel de San Francisco» da egilea, karmeldarra, Munitibarren (Arbacegui-Guerricaizen) jaioa, Korellan fraide egina, Markinan 1778. (?) urtetik 1808.era baino bizia eta Mendatan hila. Gurasoak hauek ziren: Juan de Zuzaeta eta Maria de Dondiz, «Guerricaiz» eta «Mendata»n jaiotakoak, beren ume «Miguel Ignacio de Zuzaeta y Dondiz» 1745. urteko irailaren 28.ean munduratu zela. Korellan 20 urterekin egin zen fraide 1765.ean, eta Mendatan hil zen 1808. eta 1815. urteen artean.

Azkeneko urteen berri Fr. Bartolome de Santa Teresak ematen digu, honela dioela: «La Historia es deudora a la buena memoria de los especiales bienhechores, entre los cuales se pone al Sr. D. Celedonio de Axpe de la Villa de Lequeitio, distinguido Abogado de este Señorío de Vizcaya, quien siempre ha protegido a esta casa (Markinako Karmeldarrena), y a sus individuos, y lo está practicando; este Caballero Cristiano, después de vestirlo de Clérigo decentemente al P. Fr.

Miguel de San Francisco, le franqueó su casa y mesa; y aun le asignó su alimento vitalicio en falta suya; y siendo comensal suyo murió el P. Fr. Miguel en Mendata». Ez dugu ahaztu behar Markinako fraideak komentua utzi beharrean aurkitu zirela 1808.ean.

Egileak berak esaten digu noiz egin eta non eman zure bere sermoia: «Fr. Miguel de S(a)n Fran(cis)co año 1778, compuso en Marquina, y lo Predico en la Parroquia de d(ic)ha villa â 15. de Marzo de dicho año».

GRAFIA ETA FONETIKA

1. Grafia.

Hitz barruan ez da erabiltzen u bokala b/v kontsonanteen ordez. Hitz hasieran u bokalaren partez v ageri da behin baino gehiagotan: «*uste*» 1,1 eta «*vrte*» 1,1. Noizean behin m idazten du bukaeran: «*eurem* erruz» 1,2. Badaki *ts/tz* erabiltzen, ez ordea kontsonante ondoan: «*deutsut*» 1,2; «*lotsia*» 1,2; «*jaquinsu*» 1,3; «*viyotza*» 1,1; «*viyotzeco*» 1,1; «*eranzungo*» 1,1. Behin *tc* aurkitu dugu: «*vicitcia*» 1,6. Batzutan, *x* grafemak *ixa* adieraz dezake: «*elexara*» 1,1; «*esquerguextoan*» 1,3; beste batzutan berriz *s*: «*Examinau*» 1,1, baina «*esaminauco*» 1,1.

2. Fonetika.

Bokalak. Bonapartek Markinako armonizazio bokalikoaz dioenari buruz (Ik. Baraiazarra, Euskera, 1986-1, 165. or.) hau daukagu: a) $a + a > ia$ egiten da, eta $a + ak > aak$: «*demporia*» 1,1 eta «*deungaac*» 1,1; b) $e + a(k) > ia(k)$: «*maitia*» 1,5 eta «*senidiac*» 1,5; c) $i + a(k) > iya(k)$: «*irudiya*» 1,6 eta «*guztiyac*» 1,1; d) $o + a(k) > oa(k)$: «*gavecoa*» 1,1 eta «*gurasoac*» 1,2; e) $u + a(k) > uba(k)$: «*buruba*» 1,7 eta «*escandalubac*» 1,2.

Aipatutako aldaketa horiek badute saibuespenik zenbait kasutan: «*betea*» 1,5; «*arpeguia*» 1,4; «*besuac*» 1,3. Bestalde, adizkietan $oa > ua$ egiten da gehien-gehienetan: «*guazan*» 1,6; «*dagualaric*» 1,4; «*juan*» 1,4.

Noizean behin *i* bokalaren eraginez aldatu ohi da ezker edo eskuin aldeko *a*: «*gueiia*» 'gaia' 1,3; «*viyer*» 'bihar' 1,1; «*iguertu*» 'ihartu' 1,6.

Kontsonanteak. Ez dio beldurrik *f* grafemari: «*profeta*» 1,3; «*Profanau*» 1,4; etab.

Adizkietan *j/y* alternantzia gertatzen da, baina egia esan behin bakarrik aurkitu dugu *y*, beste guztietan *j* ageri dela: «*yacanez*» 1,2; baina «*jacola*» 1,4; «*jacon*» 1,3; «*jaque*» 1,6. Hurrengo sermoietan, ordea, *j* bakanen bat aurkitzen da, *y* ia erabat nagusitzen dela.

Ez partikula eta hasieran *b* duen adizki bat topatzen direnean, *b* hori *p* bilakatzen da: «*ezpadau*» 1,5; *d* rekin, *t* sortzen da: «*eztira*» 1,1; *g* rekin,

k—: «ezcaizan» 1,6; *z*—rekin, ez dago aldaketarik: «ez zala» 1,4 eta «ez zaizan» 1,5.

Noizean behin (oso bakan) —*s*/—*ske* leitzen da, —*z*/*zke* espero denean: «tormentuz da penas» 1,4; «zirarresco» 1,4.

MORFOLOGIA

1. Deklinabidea.

Ablatiboa —*rik* eta —*tik* da singularrean: «*videric*» 1,4 eta «*infernutic*» 1,6; eta —*tarik* eta —*etatic* pluralean: «*tormentubetic*» 1,7 eta «*tormentubetic*» 1,6.

Datiboa —*ari* eta —*ai* da: «*Anaiyari*» (sing.) 1,6 eta «*Alabai*» (pl.) 1,2.

Genitibo edutezkoa gehienetan laburbildurik ageri da singularrean: «*Erreguien*» 1,3. «*Diabruben*» 1,4; etab.

Motibatiboa —*gaiti* eta —*kaiti* da: «*galdubagaiti*» 1,6 eta «*deungaacaiti*» 1,6.

Prosekutiboa —*ti* da: «*zuaz vide orretati*» 1,7; «*aoti*» 1,1; «*ganeti*» 1,4.

Soziatiboa —*akin* da bizigabeetan pluralean: «*obligacinoiaquin*» 1,2 eta «*obligacinoiagaz*» (sing.) 1,3.

2. Zenbait gertakari.

Behin aurkitu dugu —*ez* atzizkia, beste guztietan *edo ez* dioela: «ez tago zetan ibili...: gueratu ete yacanez pecatubaren bat..., eguieteban, *edo az*» 1,2.

Futurozko inperatibo hau ikusi dugu: «*eguin eiquezu*» 1,5.

Emon aditzarekin —*tera*/*tararen* ordez —*ten* ikusten dugu: «*edaten emoteco*» 1,3; «*adietan emon*» 1,1, baina «*emongodau adietara*» 1,5.

Zu eta *zubek* adizki bera erabiltzen dute: «*dozu (zuk)*» 1,7 eta «*dozu (zubek)*» 1,7.

SINTAXIA

Gehienetan *ez* partikula aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean agertzen da: «*gueratu eztaquidan*» 1,1; «*entregau ez zaizan*» 1,5; etab.

Erlatibozko perpausak zenbait aldiz *zein* (*ez nor*, *zer*, *non*, etab.) izenordainaren bitartez moldatzen dira, aditzari —*n* erasten zaiola behin eta ezer erantsi gabe bi aldiz: «*zeingaiti adietan emonguradeutsudan*» 1,1; «*zeinec... dago*» 1,5; «*zein da testigu eguityazcoa*» 1,5.

Klonpletiboak *eze*, *ze* —*la* eta —*na* bitartez tajutzen ditu. Behin bakarrik ikusi dugu —*na* atzizkia: «eztaquizu... escrividuric dagozana...? Eta... zure contra jaguico *dala* (sic) zeure concienciya...?» 1,5.

Exageratiboak *ce* bitartez: «ain zala andiyya; *ce*... diño» 1,3.

Kausazkoak *ce* eta *cerren* bitartez: «*Ce* ciertu esatendeutsat» 'quia' 1,3; «*Cerren* bazuc biardabe» 1,1; «*Cerren* cansauco da» 1,5. Ia beti *zerren* eta ez ze erabiltzen du.

GURE LANA

Esquidatzian dauden bezala saiatu gara transkribatzen bai grafemak eta bai hitzak. Izan dugu zalantzarik hitzak bat eginik ala bat egin gabe ote zeuden erabaki-

tzean. *U*— larria beti *V*— grafemaz dago idatzia, eta guk *U*— egin dugu. Hori bera gertatzen da *I*— larriarekin, hori beti *Y*—, baina guk *I*— egiten dugu konsonante aurrean. Zenbait laburdura, dauden bezala utzi ditugu: *c*. 'capite'; *cap*. 'capite'; *p*. 'pagina'; *Ps*. 'Psalmo'; *t*. 'tomo'; *V*. 'versiculo'; *V.g.* 'vergi gratia'.

Adibideetan ipintzen diren zenbakiak sermoia eta orrialdea adierazten dute. Horregatik, lehenengo zenbakia beti 1 da, lehenbiziko sermoia bait da hau, kontutan hartzen ditugula beste testuak hurrengo lan baterako.

Adizki guztiak ipintzen ditugu, hiztegian berriz zenbait hitz jakingarri bakarrik.

LABURDURAK

a.: aditza, ad.: adberbioa, adj.: adjetiboa, at.: atzetik, atz.: atzizkia, au.: aurritzia, d.: determinatzailea, i.: izena, ik.: ikus, io.: izenordaina, j.: juntagailua, p.: posposizioa.

TESTUA

Miserere del año de 1778¹.

Quoniam² iniquitatem meam ego cognosco, et peccatum meum contra me est semper. Ps(almo) 50.

Salutacion.

Jangoicoaren Magestadia ofendidudaven christinau galdubac, viirtucobada gracyazco estadura, eta Jangoicoen adisquidetasunera; viardau ezautu lelengo deungaro eguindavena: ala adietan emotenduscu David Erregue ta Profeta Santubac: *quoniam iniquitatem meam ego cognosco*: Eta ezauturic damututenda; eta damu andiyagaz dator bere pecatubac Jangoicoari claru eta zuzen confesetara; pecatari andiyonec egueiban modura: *Tibi solo pecavi³: Delictum meum cognitum tibi feci, et iniustitiam meam non abscondi*: Onetaraco bada gogoratiardituz bacoachac ondo bere pecatubac: Examinaubiardau atencinoe andiyagaz bere viyotza, etorrigo bada deungaro eguin dituban gauza guztiyaz ezaututera, eta confesinoe on bat eguitera: alan esatenduscu Espiritu Santubac Isaias Profeta Santuben aoti: *recogitabo tibi omnes annos meos in amaritudine animae meae⁴*: Neure viyotzeco damu andiyagaz gogoratuododaz vein, virretan, da irubider (diño S(a)n Bernardo gloriosoac) barrien barri esaminaucodot neure viyotza, eta ecarricododaz gogora neure vici dempora guztiyan eguindodazan pecatubac, venturaz gugaratu eztaquidan neure erruz azturic, confesaubagaric eta parcatubagaric. Orregaiti diño S(a)n Bernardino gloriosoac christinauric asco examinaren faltaz confesetan diriala deungaro. Au da bada motivoa, zeingaiti adietan emonguradeutsudan doctrinazat nola eguinbiardozun examina concienziyacoa.

¹ Gurutze bat eta lerro hau estalkian daude, eta bertan eskuin aldeko goiko zokoan beste hau irakurtzen dugu: «En Leq(ueiti) o D(omingo) 2º Tarde». Estalkian bertan «Doctrina sobre el Examen» idatzi dute arkatzez.

² Latinezko pasarte guztiak azpimarraturik daude.

³ Hemen «pecavi» dio, «peccavi»ren ordeaz. Lainezkoetan beste oker hauek aurkitu ditugu: «peccatorum» 1,1; «peccatum» 1,3 (tituluan); «comutata» 1,4, ez «commutata»; «peccatum» 1,4; «Dulcedo» 1,4, ez «Dulcedo»; «espina» 1,4, ez «spina»; «dulcedo» 1,4; «peccatum» 1,4; «peccatorum» 1,5; «consensiens» 1,5, ez «consentiens»; «mitaris» 1,5, ez «mittaris»; «Hyemem» 1,6, ez «Hiemem»; «pecata» 1,6; «bobis» 1,7, ez «vobis»; «es» 1,7, ez «est»; «conciencia» 1,7, ez «conscientia»; «seva» 1,7, ez «saeva»; «condenationis» 1,7, ez «condemnationis»; «peccatore 1,7; «penitentiam» 1,7, ez «paenitentiam»; «Demonibus» 1,7, ez «Daemonibus»; «peccatum» 1,7; «pecavi» 1,7; «prestare» 1,8, ez «praestare»; «secula seculorum» 1,8, ez «saecula saeculorum».

⁴ Orrialdearen bazterrean «Is(aias) 38.v.15» dago.

Etza bada beste gauzaric, neure Christinau devotoac, examina concienciya-coa, ezpada bacoachac eguindituban pecatubac bana bana⁵ gogora ecartia: *Est recordatio peccatorum in particulari*: Onetaraco ipinibiardogu alaco diligenciya, nolacoa ipini daruagun munduban Alcanzetaco ondasun andibat: bada izanic Jangoicoaren graciya munduban, da ceruban dan ondasunic andiyena, edozein diligencia derichat izango dala laburra aurquituteco ain gauza pare gavecoa: Baiña christinauric asco dagoz examina concienciya-bapere casuric eguiten eztavenac: Burubac emotenbadeutse viyer confesaubiardavela, ya vereala ustedave pres-tauric dagozala; Eta nunda examina concienciya-coa? O ori oian, edo elexara noian-nian eguingododana da; ori gauza erreza, eta arina da, eta instantebaten eguitendana; eta biarbada vrte guztiyan confesaubagaric egon yzango da: Au da ascoren examina concienciya-coa: Orregaiti acusetan eztira ondo, eta eguitenditu-bez confesinoe deungaac: ezpabere esaidazu zein da motivoa, asco confesetan dirian moduban confesetaco: V.g.⁶ itandutendeutso confesoriac zeimbat virao eguin dituban? eta eranzungo deutso batac sarri Jauna; bestiac ascotan eguindarudaz; bestebatec banacabazuc: Eta zeimbat derichazu izango diriala? Sarri, banacabazuc, edo eztaquit Jauna eranzungo dau: Bada itandutenbadeutso confesoriac: Eta zeimbat dira intencino deunguiagaz eguindo zuzan viraoac? Jauna nosicpein, banacatan: guichibat gora bera zeinbat bider? Eta orduban eranzutendave burubac emotenduseena: biarbada Jauna zorci, amar, edo amavi bider esan izangododaz. Eta au dala derichazu neure christinau devotoac ondo confesetia?⁷ Eztaquizu pecatu bacoacha verez confesetaco nola daucagun obligacioia? eztaquizu confesau biardogula ciertuba ciertubaleguez, dudacoa dudacoaleguez, mortala mortalaleguez, eta veniala⁸ venialaleguez? Bada daquizula, onela confesetan-zarianac, confesetan zara deungaro examinaren faltaz.

Orregaiti ondo confesau guradavenac examina concienciya-coa eguinbiardau onela: Erregutu, eta escatu Jangoicoari bere auxiliyo santuba, eta argitideiyola bere entendimentuba; viyotzeco damu andiyagaz acto contricinocobat⁹ eguin, edo esan: Sinistu, eta artu esperanza segurubat penitencyaco sacramentu santuba, eta Jesuchristoren merecimentubac diriala vitarte alcanzaucodavela bere pecatubac gogoratuteco, edo memoriyara ecarteco. Zeimbat dempora viardozun; ecin seña lauley guztiyoenzat; Ceren bazuc biardabe dempora gueiyago (2) beste bazuc baiño: Urtian bein baiño confesetan eztanac gueiyago biardau ilabiric ilabira¹⁰ confesetandanac baino: Vizitza guztiz galduba euquidavenac gueiyago biardau veguiratubagaz vici izandanac baiño: tratu, eta contratu asco daravillenac

⁵ Gero *n* bat ipini du lerro artean, horrela «bana banan» egiteko. Berriz ere *bana bana, n* gabe, idatzi du 2. orrialdeko 4. paragrafoan.

⁶ Latinezko «Verbi gratia» da.

⁷ «confesia» dago eskuidatzian (E).

⁸ Hitz hau falta da E-an.

⁹ «contricinobat» E-an.

¹⁰ Barruko —a— ez dago argi E-an.

dempora gueiyago biardau, bapere eztaucanac baiño. Persona bazuc biarcodabe zorci egun, egun bacochoian ordu bat, edo vi empletandituvela: beste bazuc sei, lau, edo bat; eta sari confesetandan batenzat ordubat, edo vi, edo ordu erdibat biarbada izangoda bastante examinetaco bere concienciya. Artu¹¹ ezquero bada bacochoac biardaven demporia, eta eguin ezquero aleguina ecarteco bere Pecatubac gogora; eztago zetan ibili guero penaz, da tristezez veteric, bere buruba, osasuna, ta demporia galzen¹²: gueratu ete yacanez pecaturen¹³ bat confesaubagarric, eguieban, edo ez examina concienciacoa biarzan moduban: Onelaco persona escrupulosoac eguinbiardavena da, confesore prudenteac esatendeutsana, eta ichi Jangoicoen escubetan bere viyotza, ta arimia. bestela provechu aterabiarrean, ecarricodituz calte andiyac vere viyotzera.

Escaturic bada Jangoicoari arguitasuna ta vere graciya, eta arturic biardaven demporia examinetaco vere concienciya: assico da eguindituban pecatubac ecarten gogora: Veguiratucodau lelengo daucan estadura, edo oficiyora, ycusicodau atencinoe andiyagaz cumplidu daben, edo ez daucazan obligacinoiaquin: Ugazabaac, eta gurasoac examinauco dave, nola iracatsideutsen euren oguipiean¹⁴ dagozanai, eta Seme Alabai Doctrinia, Jangoicoaren¹⁵ vildurtasun santuba, eta zeruraco vide zuzena: ejemplu deungaric emondeutsen, edo ez: criyau criyadac examinaubiardave aleguiña eguindaven, edo ez servietaco vgazabaac, euren cuidadoren faltaz, edo euren erruz calteric ecarridaben edo ez, dagozan echeetara: lotsia, edo errespetua galdu deutsen edo ez: Oficiyocoac examinaubiardave euren oficiyo, ta artu emonetan inor engañau daven, edo inori calteric eguindeutsen: En fin bacochoac veguiratubiardau daucazan obligacinoetara. Onez¹⁶ gañeti veguiratucodau cumplidudaven edo ez, fede, esperanza, ta amodiyozco actoac eguiteco daucagun mandamentu santubagaz; bada mandamentu onec obliguetan gaitu pecatu mortalen beian vso errazoeco demporan; eta guichienez urtian bein: examinaubiardau fedezco misteriyu, ta articulubetan¹⁷ dudaric euquidaven, edo ez: desesperau, edo Jangoicoen¹⁸ gorrotoric¹⁹ euquidaben edo ez: Diabrubagaz pactoric, traturic, edo comunicacinoeric euquidaven, edo ez: Onela igarocodituz amar mandamentubac, eta vost Elexacoac; mandamentu bacochoian ondo veguiratutendituzala daucazan obligacinoiac, jaquiteco euren contra eguindituban pecatubac.

¹¹ «Artuco» E-an.

¹² Uste dugunez «galzen» irakur liteke, lehenbizi «galdun» idatzi duelarik, «galduten» ipini beharrean edo.

¹³ E-an «pecatuben».

¹⁴ Hola dago eta ez «oguipiean». Beste sermoietan «beian» hitza ageri da.

¹⁵ E-an «Jangoicoaren».

¹⁶ E-an «oñez».

¹⁷ E-an «Articubetan».

¹⁸ E-an «Jangoien».

¹⁹ E-an «gorrotoric», baina hurrengo paragrafoan «gorrotuac».

Baiña gauzabat adietan emon biardeutsut oraindiyo gueiyago: eta da esatia: Pecatubazuc diriala chito erraz ezaututendirianac; eta dira onelacoac: viraoac, maldiciñoiac, juramentu falsuac, ordiqueriyac, lapurretaac, Adulteriyocac, berba desonestoac; eta tocamentu loiyac; eta beste onelacoac. Beste bazuc dira ain erraz ezaututen eztirianac, eta cuidado gueiyago biardavenac: oneec dira gorrotuac, murmuracinoiac, escandalubac, pensamentu, eta deseo loiyac; embidiya, codiciya²⁰; naguitasun, vanidade, ta soberviyazco pecatubac: eta beste onelacoac: Oneec dira zeimbat dirian ciar²¹ aterateco gachac, eta diligenciya ta ciudado²² gueiyago escatuten deuscubenac: Orregaiti examina eguitendozunian, veguiratu biardo zu ondo zeimbat bider, zeimbat dempora, eguinetecenduban orrelaco pecatubetan; zerren dempora guichi barru eguileiz pecaturic asco; onelaco pecaturic gueiyenac dirialaco viyotzian bertan amaitutendirianac: eta ondo ez gogoratutiagaiti bere pecatubac; examina concienciya ondo ezeguitiagaiti; confesetandira christinauric asco deungaro; Orregaiti diño S(a)n Agustin glorioso, ta Elessaco Eraculse andiyac, christinauric asco condenetandiriala, aimbete bider confesau, eta comulgau ezquero.

Baiña esango deust orain batec, edo batec: Aita nola posible da, neure pecatu guztiyac bana bana neure gogora ecartia? Ezin adietan emoneiz zeimbat dirian nire virao, pensamentu deunga, eta eguindodazan loiqueriya guztiyac? Ni ezin confesauneiteque ondo; eta nirezat eztago²³ erremediyoric; Eta alan zuzen juanbiarcodot infernuco ondarretara. Ez neure christinau maitía²⁴; eztaucazu zetan eztutu²⁵: (3) zurezat bere bago erremedioa. Valdin egonbazara Jangoicoen contra gorrotoz veteric zeure vici dempora guztiyan: pensamentu deunga guztiyai lecu emon badeutsezula²⁶ zeure viyotzian: eta eguinbadozuz deshonestidade, ta loiqueriyaric andiyenac, eta munduban dirian pecatu genero guztiyac; alambere eztago zetan vildurtu; eztaucazu zetan icaratu; zu erremediyaucozara, valdin aleguina eguinic bazatoz; eta²⁷ viyotz humilde, eta Damutubategaz. Esaidazu pecatari tristia; venturaz gogoratuco dozu ilian zeimbatbider mandamentu orren contra pecatu eguinzenduban. Ez Aita. Astian zeimbat bider jaustencinian ecarricinai memoriyara. Ez Aita. Ondo dago. Jaquincinai egunian, edo ordubacochian zeimbat bider jaustencinian egunbata bestiagaz: ziur ziur ezin esaneiyo Aita. Prestauric zengozan edocein ordutan pecatu eguiteco? Baia Aita. Eta baquizu nos asicinian orrela pecatu eguitera? bai Aita, vrtebete, vrtebi, lau, zorzi, amar, edo gueiyago²⁸ dira onela vicinasala. Eguinbadozu bada aleguina, examina dala vitarite, ecarteco zeure pecatubac gogora; ezin atera izanbadozu beste gauza cierturic,

²⁰ Hitz honen ondolik «jan, edanac» ipini du eta gero ezabatu.

²¹ «ciar» espero da, eta hola dago 3. orrialdean.

²² E-an «cuidada».

²³ Lehenbizi ezta ezarri du eta gero—go erantsi beste tinta batez.

²⁴ Azentu marka ikusten dugu bigarren —i— gainean.

²⁵ Lehenbizi «estutu» ipini du eta gero »eztutu» egin du.

²⁶ E-an lehenbizi «badeutsezula», eta gero —la erantsi.

²⁷ Beharbada, eta hitza ezabaturik dago.

²⁸ E-an «gueiyago». Lehenbizi gueiy idatzi du eta gero —go erantsi.

cumplidodozu zeure obligacinoiagaz; bada Jangoicoac aguindutendeuscuna da aldaigun moduban confesoriari adietan emotia zeure viyotzeco eta concienciyaco estaduba. Onela examina eguin ezquero, damu, ta propositu firmiagaz jua baño eztauco bapere vildurbagaric confesore jaquinsubaten oñetara²⁹ orain artian izan bada bere pecatariric andiyena; Ce ciertu esatendeutsat, Jesus maitiac besuac zabalac errecividuco davela, aren Divina Magestadiari atseguin andibat emongo-deutsala, eta alcanzauco davela bere pecatuben parcacinoia, ta Jangoicoen graciya. Au da orain nic neure sermoeraco viardodana: escatudeiyogun Maria Santisimari S(a)n Gabriel Anguerubagaz esatendeutsagula AVE MARIA.

Quoniam iniquitatem meam ego cognosco, et peccatum meum contra me est semper. Ps. 50.

Ezautuebala esatendeuscu David Erregue ta profeta santubac arrasalde onetan, nola esquerguextoan ofendiduric eucan bere Jangoico maitia; Eta ezauguera³⁰ au ain zala andiya; ce berac bacarric diño ezaututeebala: *Ego cognosco*. Eta zerda Jangoico ona? Zerda Profeta santu onec ezaututendavena? Ezauteban neure christinau devotoac bere pecatuben gravedade, edo astuntasuna: ezautueban vere viyotzeco iluntasun gogorra: ezautueban eucan estadu galduba: ezautueban nola amaitu jacon graciya zco vicitzia: ezautueban nola veragaz eucan Condenacinoeco Sentenciya: ezautueban, nola bere viyotza Jangoicoen Paraisuba zana, nola orain Demoninuac daucan infernuco ilintiya baño balzago eguinic, eta vere jarlecuzat arturic: ezautueban Jangoicoen Pacienciya paregavecoa, bada aimbeste vider ofendiduarren aren Divina Magestadia; alambere piedade, ta misericordiyaz veteric ezaututeeban dei eguiteeutsala: *Ego cognosco*: Ezautueban azquenic, pecatuben gozotasun madaricatubac vere viyotzian ichieutsan aranza gogorra, eta concienciyen gueratuzan ar madaricatuba, zeinzuc³¹ egozan beti bere contra, atsacaba, estutasun, eta tormentu gogorra emoteutsela: *iniquitatem meam ego cognosco: et peccatum meum contra me est semper*. Au da David Erreguiac ezaututendavena, pecatubac concienciyen ixtendaven³² pena estuba, ta crubela, condenacinoeco sentenciya beti adietan emotendavena: Eta au da arrasalde onetan neure christinau maitiai adietan emonguradeutsedana: ezaturic David Erregue santuonen moduban, urtendaiyan becatari tristiac ain estadu, galdutic³³ arrasalde onetan damu, ta proposito firmiagaz Jangoicoen piedade, ta misericordiya escatutera. Au izango da neure sermoe guñiya. Guazan icustera.

²⁹ E-an «onetara».

³⁰ Lehenbizi, uste dugunez, *ezagumentu* jarri du eta gero *ezauguera* edo. Ez da erraza leitzen, aldaketak lehengo hitzaren gainean egin bait dira. Egileak «ezaguera» erabili ohi du, ez «ezauguera».

³¹ E-an «ceinzuz». Lehenbizi *zein eguan* eta gero «zeinzuz egozan».

³² Ez dago argi —x— hizkia E-an. Ik. 44. oharpena.

³³ Ezabaturik dago *edo* hitza, *estadu*, *galdutic* hitz eta koma artean zegoena.

Esatendeuscu Espiritu Santubac Daniel Profeta Santuben aoti; Baltasar Erreguiac combidaucitubala beinbatian bere Erreñuco andiquiyac: conbit onetan egozan Erreguiña, concubina, edo Erreguien Señoraac: celebretaneben³⁴ egunau musica, poztasun, eta atseguin andiyaquin: Gueituteco funciñoonetaco alegríya; eta adietan emoteco bere podere andiya; aguindueban, ateraejyezala³⁵ edaten emoteco zirarrezco, eta vrregorriczco baso sagradubac, Nabucodonosor bere Aitac Jerusalemgo Jangoicoen Templo, edo Elexatic³⁶ quendu-(4) cituzanac: Eguinzan Erreguien aguinduba; Eta zer derichazu jazozala? ecarricituben, eta baso sagraduoneetan edateeben Erreguiac, andiquiac, eta emacumiac guztiyac alabentancitubela euren Jangoico arrizco, burdinezco, egurrezco eta zirarrescoac³⁷. Vertati aguertuzan Erreguien salaco ormaan escubaten irudibat iru berba onec escribietancitubala: *Mane, Thecel, Phares*: Eta zer vstedozu Erregue oni jazojacola? Escritura Santubac berac emongo deuscu adietara: Orduatan bertan diño; orduatan mudaujacola arpeguia, galdu ebala irudiguztiya; pensamentubac estututeeutsela vere viyotza; aim vildurtasum³⁸ andiya³⁹ eucala; ce velaun biyac icara alcar joteebeela; eta vere gorpuzeco juntura guztiyac soltaubiarebela vsteebala: *Tunc facies regis comutata est, et cogitationes ejus conturbabant eum, et compages ejus solvebantur, et genua ejus ad se invicem collidebantur*⁴⁰. Icaragogorric artueban, galdueban coloria, eta gorpuzeco azur guztiyac asicirian alcarreganic alde eguitera: zec vildurtuteeban bada Erregueau, egonic aimbeste Andiquien artian; eta onez ganeti milla soldadugaz inguraturic dagualaric, noc emoleiyo ain tormentu pare gavecoa? biarbada ezeeban artuco ain atsacaba andiya, sartubaliz bat ezpata zorroza escuban ebala, eriyozza Erreguiari emotera. Zeinzan bada motivoa? Ez beneric, diño S(a)n Agustin gloriosoac, ez beneric bere concienciya galduba ezpada: *non alius, quam conscientia erit*⁴¹. Profanaucituban Jangoicoaren vaso sagradubac, eguitebala sacrilegiyo eta pecatu madaricatuba; amaituzan pecatu onen gusto galduba; eta ichieutsan viyotzian ar madaricatubat; igaro eutsan bere concienciya aranza crubelac; zeñec emoteutsan ain atsacaba, vildurtasun, ta tormentu parebaguecoa. Esateutsen Erregue oni, ezeucala zetan vildurric⁴² artu, ez zala bere contra ormaan escribiduzana: baiña bestela diadar eguiteeban concienciyan eucan pecatubac: *et peccatum meum contra me est semper*: pecatuba da eguana bere contra; au da tormentuz da penas⁴³ amaitubiarebana: Orregaiti diño Job Profeta Santubac: Pecatuben gozotasunac arra, ta garraztasun gogorra viyotzian

³⁴ E-an «celebretaneben».

³⁵ Hola, eta ez «—eiyezala».

³⁶ Ez gaude bat ere ziur nola dagoen E-an. «Elexaitic» ala «Elexaric». Egileak biak erabili ohi ditu: bai —*tic* eta bai —*ric*.

³⁷ E-an «zirarrescoac» dago, baino bi hitz lehenago «egurrezco».

³⁸ «aim» eta «vildurtasum».

³⁹ E-an «aindiya», eta «aindiyena» 7. orrialdean. Ik. 77. oharpena.

⁴⁰ Orrialdearen bazterrean: «Daniel(is) 5.v.6».

⁴¹ Bazterrean: «S(an) Agustin Ps(almo) 37.».

⁴² E-an *vildurri* dago, bukaerako —*c* gabe.

⁴³ «penas» dio, baina bi hitz lehenago «tormentuz».

ixtendavela⁴⁴: *Dulzedo illius vermes*⁴⁵. Larrosia bada ain colore, ta vsain ederreco, ezta jaiyoten aranza zorroz ezpada, atsacabaz⁴⁶ nequeturic ixteco bera artunaidavena: *Rosa quae redolet, crescit cum espina, quae pungit*.

O neure christinau devotoac. Au da gure⁴⁷ viyotzian pecatubac eguitendavena. Au da gueure areriyuen asmu gwestoa. Opa deuscu Diabrubic gusto loibat; eta ifintendau vrregorriczo basobatenleguez bere edertasunez, da gozotasunez veteric: Icustendau christinau galdubac campoti aguiridaben edertasuna; baiña itsuturic dago, barruban ezcutetan daven garraztasuna, ta aranza zorroza icusteco. Azartuten da christinau galduba Demoninuac opadeutsan gozotasuna artutera, eta gueratutenda concienciyaan pixtiya⁴⁸ crubelbat, beti vildurtutendavena: *dulzedo illius vermes*: pecatubaren aranza gogorric igarotendutso vere viyotza, eta atsacabaz, da penaz ecin sosegaua: alam esatendeuscu David Erregue ta Pecatari Damutu, eta Santubac: *Conversus sum in erumna mea, dum configitur spina*: Aranza gogorrau diño dala Jangoicoen contra eguindaben pecatuba, eta aren Magestadiari adietan emotendutsana. *Delictum meum cognitum tibi feci, et injuriam mem non abscondi*: S(a)n Geronimo Andiyac diño, ece Aranza au dala peccariyen concienciayaco neque galduba beraganic ecin apartaudavena: beti dauco Jangoicoen Tribunalian concienciayac peccariya tristia⁴⁹, diño S(a)n Juan Christos-tomo gloriosoac; Inorc⁵⁰ icusiezarren bacarric egon arren, ezteutso ichinai acusaubaga; juanzaitiala naidozun lecura, zugaz dua ácusetanzaitubala⁵¹, eta diadarrez esatendutsula: A Jangoicoen seme galduba, zu zara ain Jaun maitia ofendidudozuna! Zu zara bere Jangoicotasuna quendunai izandetsazuna! Zu zara gustoloi bacaiti⁵² Ceruco videric alde eguindozuna! Zu zara Jesus onaren laguntasuna esquergavetasun andiyagaz ichiric, Demoninuan compañaia igaro zariana! Zu zara munduco atseguin madaricatubatgaiti Diabrubic escubetan zeure arimia ipinidozuna⁵³! Zu zara infernuco vidian zagozana; eta condenacinoeco sentenciya zeugaz daucazuna. Onela dago beti gure viyotzian daucagun pecatuba diadarrez gure contra: *et peccatum meum contra me est semper*: (5) Vein jaiyo ezquero ezcala ilten pecatubaren pixtiya⁵⁴ galdubau diño S(a)n Bernardino gloriosoac, veti daguala viyotzari oraturic: *Hic est vermis, qui non moritur; haesit firmiter, nequaquam evellendus*: Vein, virretan, irubider, eta millabider diadar eguinarren, baldin eranzuten ezpadeutso, eguiten ezpadau esatendutsana; barrien barri

⁴⁴ Lehenbizi «isten—» idatzi duela esango genuke. Ik. «ixteco» 19 hitz aurrerago.

⁴⁵ Bazterrean: «Job. 24.v.20.».

⁴⁶ E-an *atsaca*, bukaerako —*baz* falta dela.

⁴⁷ E-an «gure» dago hemen, sei hitz aurrerago «gueure» dagoela.

⁴⁸ Ez dago argi —*x*— hizkia. Ematen du zuzendua izan dela, lehenbizi —*s*— edo patu zuelarik. Ik. 54. oharpena.

⁴⁹ Gero erantsia izan da «tristia» hitza.

⁵⁰ Ergatiboaren marka falta zaio E-an.

⁵¹ Azentu marka hasierako *á*— gainean.

⁵² Hemen «bacaiti» eta zenbait hitz aurrerago «—batgaiti».

⁵³ Beste sermoietan ez da erabiltzen «ipini», baizik eta «ifini».

⁵⁴ Lehenbizi «pistiya» ipini du.

asicodala, eta azquenengo arnasia emonartian baquian ichico ezteutsala: dala echian, dala plazaan, dala vidian, dala maiyan, dala amesetan bere pecatuben calte gogorrac adietan emotendescuzala; gau ta egun atsacabaz, tormentuz, eta vildurtasunez veteric daucala vecatariya diño S(a)n Juan Chrisostomo gloriosoac: *Licet semel, licet iterum, licet ter, licet milies admonuerit, tu quoque non obtemperes: monebit iterum, nec desistet usque ad supremum alitum: sive Domi, sive in foro, sive in itinere, sive in mensa, et in somnis ipsis peccatorum simulacra representat.* Orregaiti esatendescu gure Redentore amorosoac S(a)n Matheo Evangelista sagraduben aoti, onela: Zuazanian vidian zeure areriyoagaz, eguin eiquezu bereala verac esaten edo aguincendeutsuna, entregau ez zaizan venturaz juezari; eta juezac sartu ez zaizan carzela gogorbaten: *Esto consensiens adversario tuo cito, dum es in via cum eo, ne forte tradat te adversarius iudici; et iudex tradat te Ministro, eta in carcerem mitaris*⁵⁵: Areriyoau dala esatendescu S(a)n Atanasio gloriosoac, gure concienciya pecatubagaz loituric daguana: zeinec⁵⁶ areriyo andibat leguez, beti dago aserraturic, beti dagodiadarrez, beti dago falta chiqui, eta deungaro eguin guztiyac adietan emoten: beti dago esaten condenacioeco peligruban gagozala, viurtugaitiala Jangoicoagana, Damu andiyagaz aibat lasterren confesaugaitiala. Orregaiti aguindutendescu gure Jesus maitiac munduco vide onetan bereala eguindaigula gure areriyoac, gure concienciayac aguinzendeuscuna.

Baiña ô neure Jangoico amodiyoz betea! Zer eguitendave Adanen Seme Alaba galdu ascoc! Eguitendave benturaz concienciayac aguindutendeutsena? Etorrendira, verorren adisquidetasunera? Vatos⁵⁷ galdudaven gracyazco prenda ederra aurquitutera? Etorrendira concienciayac aguincendeutsen moduban damu, ta propositu viardanagaz confesetara? Christinauric asco ez neure Jesus maitia. Naiyago dave atsacabaz, da vildurtasunez veteric egon, etorri baiño berorren adisquidetasunera, eta galdudaven gracyazco estadu atseguin andicora: Naiyago dave ascoc Demoninuen laguntasuna verorrena baiño: ez ixtearren gusto madaricatu-bat; ordiqueriyabat; osturic daucan gauzabat ez viurtutearren; vicinaidabe garratzasunez, da tormentuz veteric: ezcutuban egueiban pecatubat ez biardan moduban confesetarren, egonaidau Demoninuen catea gogorrez inguiraturic⁵⁸; eta condenacioeco sentenciya veragan daucala; eta jaquinic guichien ustedavenian eternidade bateco jausicodala infernuco ondarretara; eta alambere egon naidau, viciguradau icaraturic, eta atsacabaz beteric christinau galdubac. Venturaz eztaquizu, esatendescu S(a)n Efen gloriosoac; eztaquizu pecatari tristia zure pensamentu, verba, ta obra guztiyac escribiduric dagozana? Eta ucatu naibadozuz bere, zure contra jaguico dala zeure concienciya, zein da testigu eguiyazcoa zeure gauza guztiyac zuzen, da artez esango ditubana? Confesau nai ezpadozu ixilic⁵⁹

⁵⁵ Bazterrean: «Ma(t)h(aei) 5.25.v.25.26.».

⁵⁶ Ergatibo marka tinta beltzez gero erantsia da, eta sobera dago.

⁵⁷ Hitz honen azkeneko hizkia aldatua izan da, lenenbizi «Vatoz» edo zioela.

⁵⁸ Egileak «inguratu» erabili ohi du. Aurkitu dugu «inguruban» ere beraren beste prediku batean.

⁵⁹ Azkeneko bi hizkiak ez dira ongi ikusten.

dauczun pecatuba, zeure conciencyac mundu guztiyen aurrian emongodau adietara: baiña derichat debalde, provechu bagaric ascori prediquetanjacola. Cerren vstedave guztiraco dempora euquicodavela: Orain divertietaco, eta gueure gurariyac eguiteco demporia da; Orain cumplidu daiguzan gueure deseo, ta gusto loi madaricatubac; guero viurtucogara Jangoicoagana; zaarzaan, pecaturic eguin ecindogunian, orduban damutuco gara; Orduban confesiñoē onbat eguiteco pres-tauro gara.

O Christinau galduba! au bada zeure goguan daucazuna, seiñale ona da esateco, Infernuraco zariala, Demoninuen artian eternidadebaten egonbiarco dozula. Cerren cansauco da Jangoicoen piedade ta misericordiya; eta jaguico da Jangoicoen justiciya icaragarriya, zeñec infernuco sugarretan ondatucozaitubana⁶⁰: Orregaiti avisetandescu Aren Divina Magestadiac Evangeliyo sagradutic; erre-gutuizu orain, diño; orain negar da zizpuru eguin, neguban izan eztein zubez mundu onetaric urtetia: *Orate, ut non fiat fuga vestra in hieme*: (6) Negubau dala diño S(a)n Atanasio gloriosoac, pecatu mortalezco egote galduba: *Hyemem peccata vocat*: Eta errazoe ascogaz: bada Nola negubac iguertu, ta galduric ixtendituban munduco lora, orri, ta arbolaa guztiyac vda guztiyen edertasunez janciric egozanac; alam diño Hugo Cardenal jaquinsubac, alam eguitendavela gure viyotzian pecatumortalac: galduten dau graciya, iguertutendituz virtutezco lora ederrac: quencendescuz aimbeste vrteco merecimentubac; eta⁶¹ ixten gaitu Jangoicoen irudiya galduric, illuntasunes⁶², balcitzuz, loitasunez veteric; eta Demoniño bat eguinic. Au da pecatubac gure arimaan eguitendavena; au da Jesus maitiacadietan emotendescuna; artu ezcaizan onela gagozala eriyotzaco ordu tristiac: baiña enzunarren Jangoicoen avisubac, conciencyaren diadar beticoac: egonarren beti atsacabaz, tormentuz, eta vildurtasunez veteric, pecatubac emotendeutsen guerra crubelian: alambere banacaac Dira David Erregue Penitentien moduban viyotz guztiti Jangoicoagana viurtutendirianac: Eta lagun asco daucaz munduban, eta Infernuban bere lelengo condenauzan Adanen Semiac Cain madaricatubac: Oni, eta onelacoay mundu onetan astenjaque infernuco tormentuba, eta atsacaba tristia pecatubac emoten deutsena: guazan icustera⁶³.

Quendu eutsan Cain galdubac Abel bere Anaiyari vicitzia: *Consurrexit Cain adversus fratrem suum Abel, et interfecit eum*⁶⁴: bereala tristezaz, eta vildurtasunez veteric asizan bere tormentuba conciencyac emoteeutsana: Usteebala diño lelengo aurquituteebanac quenduco eutsala viciya: *Omnis igitur qui invenerit me, occidet me*⁶⁵. Veti eguan estuturic, atsacabaz amaitu biarrian bere vicitzia, eta ezin amaituric. Eta zegaiti vstedozu Jangoicoac bertatic⁶⁶ castigau ezebala? Zegaiti?

⁶⁰ Hola dago: «—zaitubana».

⁶¹ E-an *et*, bukaerako —a falta dela.

⁶² Bukaeran —s duela, baina hurrengo hitzetan: «balcitzuz, loitasunez» —z jartzen duela.

⁶³ E-an «icustera».

⁶⁴ Bazterrean: Gen(esis) 4.».

⁶⁵ Bazterrean: «Escritu(ra) Sag(rad)».

⁶⁶ Lehenbizi *bereala* ipini du, gero *bertatic*.

S(a)n Geronimo gloriosoac emongodeuscu adietara: Ezeutsala emon nai izan erremediyozat eriyozta diño santubonec, ezpada atormentauleiyala aric eta zazpigarren⁶⁷ senidiac jayoartian bere concienciyaan eucan aar, eta aranza gogorrac: *Nolo mortem pro remedio accipias, sed usque ad septem generationes conscientiae tuae igne torqueberis*. Emen asijacon infernuco tormentuba; eta ala vici yzan zan aimbeste urtian, et azquenic⁶⁸ juanzan betico Demoninuen artera. Au da bada motivoa S(a)n Bernardo gloriosoac esateco; pecatu mortalian dagoan concienciya dala infernuba: eta au dala David Erreguiac bere adietan emoten davena; graciya Jangoicoari emoteutsazanian librauebalaco vere viyotza infernutic, eta pecatuben tormentubetic: *Eduxiste ab inferno animam meam, dum anxietur super me spiritus meus*.

Onela bada eternidadebateco infernuban ondaticoda Cain madaricatubaren moduban pecatu mortalian orain egon guradavena, mundu onetan astendavela infernuco tormentuba bere concienciya emoten deusana; eta au da Jangoicoen piedade eta misericordiya andibat; Cerrem pena onegaz irazartu nai leuquez Jangoicoac pecatuben loo gogorric, onela ecarrteco pecatuben astuntasuna ezaututera, eta aren⁶⁹ Dibina Magestadia ofendidudavelaco damu andibat artutera: Baiña alan bere christinau ascoc eguitendau Cain madaricatubac eguebana: bere artian estuturic, eta icaraturic vicida: baia Jangoicoa ofendidudavelaco bapere damututen ezta: eta gueiyago eguitendavena da, aurrera juatia euren pecatubaquin euren costumbre deunguquin; aric eta eldu artian infernuco ondarretara, Cain galdubari lagun eguitera. Onelaco christinau deungaacaiti esatendeutso David Erregue santubac Jangoicoari; zazpibider tormentu gueiyago emondeiyueela euren viyotzian: *redde vicinis nostris septuplum in sinu eorum*: S(a)n Agustin gloriosoac: *Torque septuplum conscientiam eorum*: zazpibider tormentu gueiyagogaz vicideitiala onelaco⁷⁰ pecatari esquer gavecoac, eta azquenic Demonioño bazuc eguinic emondaiyela euren vicitzia:

Orregaiti esaneban⁷¹ Jesuchristo gure Jaunac Judas galdubagaiti; Diabru-(7) ba zala: *Vnus ex vobis Diabolus es*: Eta zegaiti vstedozu neure christinau devotoac? Ez beste motivogaiti: ezpada eguinic Pecatuba, salduric bere Maesu Divinoa, ofendiduric bere Jangoico ta criadoria: enzunic concienciya emoteutsazan diadarrac; emonic atsacaba, ta tormentu icaragarria bere viyotzian eucan aar, da aranza crubelac; eta oneequin guztioquin bere viurtunai ezebalaco damuandibategaz⁷² Jesus maitiari parca escatutera: Agaiti diño Christo gure Jaunac, ain viyotz

⁶⁷ E-an baliteke «saspigarren» egotea.

⁶⁸ E-an «atquenic».

⁶⁹ E-an «airen».

⁷⁰ E-an *onelaco* hitza errepikaturik.

⁷¹ Lehenbizi «esaban» eta gero barruko —n— hori erantsia.

⁷² E-an «dumu—».

gogorra posible ezta Diabrubat ez izatia; alan eracutsi eban beracpere, bada vrca-turic galdueban bere vicitzia: *Laqueo se suspendit*: baiña noc erueban vrcamendi-ra? Noc eruango eban. Berac bere buruba: Concienciya esateetsan alan viciba-zan condenaubiarebala: *Conciencia seva dat testimonium condemnationis*⁷³. diño Espiritu Santubac escriptura sagraduban: Ezin sufridueban concienciya emote-etsan atsacaba, ta tormentuba; guichiagozat eucazala infernuco pena guztia diño S(a)n Juan Chrisostomo gloriosoac; eta alan ecin viciyzanic, onela arbolaba-ten amaituebala bere vicitzia, eta juanzala bere lagunen artera; onela poztuebam⁷⁴ Infernu guztia: *Cum non posset ferre conscientiae dolorem, adoptato sibi laqueo vitam finivit*.

O neure christinau devotoac, onegaz bere ezta escarmentauco Pecatari gal-duba! Oraindiyo egon guradau pecatuben serviciyoan, eta ain estadu madaricatu-ban? Etorri guradau Judas guextoari lagun eguitera? Naiyago dau Demoniuac alegretia, ta poztutia, ceruco Santubac, Maria Santisima, eta gueure Jangoico mai-tia baiño? Bada San Bernardo gloriosoac diño ce, nola ceruban alegretandirian pecataribat convertietan danian, alan Demoniuac infernuban christinaubat pecatuban jaustendian: *Sicut gaudium est Angelis super vno peccatore penitentiam agente; sic gaudium est Demonibus super una anima per mortalem culpam inqui-nante*. bada au alam bada; esaidazu orain pecatari galduba. Naiyago dozu Demo-niuari gusto emon Jangoicoari baiño? Naiyagodozu alegrau infernuba, ceruba baiño? Naiyago dozuz infernuco sugarrac, ceruco gloriya baiño? Naiyago dozu gusto loi galdubat Jangoicoen graciya baiño? Obeda Jangoicoen irudiya galdu, eta Demonio bat eguic egotia? Bago elexa onetan onela egon guradavenic? Deri-chat bazuc⁷⁵ egon leitequezala; bada berbaz esaten ezpadau bere, bere concienci-yan daucan pecatubac auda esatendeuscuna. Zuc nai ta nai eztozula, au da beti esango davena, dagoalaco beti zure contra esaten deuscumleguez gaur David Pen-titentiya; *et peccatum meum contra me est semper*: Naiyago dozuzala Diabruben gusto loigaldubac, bere tormentubac; eta bere laguntasuna, Jangoicoen graciya bere atseguinac, ceruco gloriya, eta Jangoicoen adisquidetasuna baiño? Baiña ez neure christinau galduba, deungaro zuaz vide orretati; zuzen zuaz demoninuen artera; jarraitu biar deutzazu David Erregue Penitente santubari, Madalena pecatariyari, eta zeruban dagozan pecatari santu ascori; zeinzuc ezaturic pecatuben ain calte gogorac viurtucirian Jangoicoagana viyotzeco damu andibategaz esate-bela: *Tibi soli peccavi*: Orain artian icharaon⁷⁶ deuscu pacienciya andiyagaz, ez merecidu izan eztogulaco Demoninuen artian oraingo egotia: ezpada bere pieda-de, ta misericordiya dala vitarte egonda orain artian gure veguira; eta arrasalde onetan dago bere besuac zabalac errecibietaco amodiyo andiyagaz munduban dan

⁷³ Bazterrean: «Sap(ientiae) 17 v.10.».

⁷⁴ Bukaeran —m.

⁷⁵ E-an *bazuc* hitza errepikaturik.

⁷⁶ Ez «icharagon» edo «icharon».

pecatariric andiyena⁷⁷, valdin damu eguiyazco bategaz badator bere oiñetara: Galdubaric bada ain ocasino ederra, guazan guztiyoc Jaun⁷⁸ divino onen oiñetara gueure viyotzac damuben poderez erdivi eguinic.

Ea christinau galduba, emen daucazu zeure Jangoico amorosoa, zuc eta nic aimbeste bider ofendidudoguna; zure pecatubac eta niriac izandira onela guztiyau odolduric, zatituric, eta difuntu eguinic ipinidavenac: zu, ta ni infernuco tormen-tubetic, eta Demoninuen arteric libretarren atsacabaz, (8) eta penaz veteric emoneban⁷⁹ bere vicitcia: Eta zein izan da gure correspondenciya? ez besteric, neure christinau maitia, barrien⁸⁰ barri gueitu cruceco pena ta tormentubac ezpa-da: au izan da gure esquergavetasun galduba: Baiña orain garbatuta gagoz guzti-yoc gueure Jesus misericordiosoa, verorren⁸¹ adisquidetasuna galdudogulaco; ve-rorren Magestadia sentimentuz veteric ichi ta Demoninuen bandora juan garialaco. O gueure esposo piadosoa guztiyoc gagoz damuturic verorren miseri-cordiya escatutendogula, eta viyoz humilde, eta devotobategaz esatendeusagula. Neure Jesus maitia Jangoico, ta guizon eguiyazco, Neure Criadoria, Neure Re-demptoria ceu ain ona zarialaco Damudot viyoz guztiti⁸² ceu aimbeste⁸³ bider ofendiduba; Damudot neure Salvadoria: Ez gueiyago pecaturic, ez gueiyago⁸⁴ Demoninuen asmu guextoric: Misericordia neure Redentore amodiyoz vetea; mi-sericordia ta gracia, ceruco prenda seguruba: Quam mihi, et vobis prestare digne-tur Jesuschristus filius Mariae Virginis, qui cum Patre, et Spiritu S(anc)to vivit, et regnat in saecula seculorum. Amen. Jesus.

Fray Miguel⁸⁵ de S(a)n Fran(cis)co año de 1778. compuso en Marquina, y lo Predico en la Parroquia de d(ic)ha villa à 15. de Marzo de dicho año.

Este mismo Sermon le predico el mismo Fr. Miguel en d(ic)ha villa año 1784. con la misma doctrina, y añadida: La Dominica quarta de Quaresma: 21 de Mar-zo.

La Doctrina del Pecado mortal, y este Sermon para la D(ominic)a terc(er)a P(arroqui)a. Lequeitio año 1785.

Este mismo predicò d(ic)ho Fr. Miguel con la doct(rin)a del Pec(ad)o mortal en Lequeitio el Domingo primero de Quaresma por la tarde año de 1787.

Este mismo Predicò d(ic)ho Fr. Miguel en Marquina Dom(inic)a 3ª. de Qua-r(esm)a con la d(octrin)a del dolor que esta en el Miserere del año de 79. año de 1787.

⁷⁷ E-an «andiyena». Ik. 39. oharpena.

⁷⁸ E-an «Jan».

⁷⁹ Baliteke barruko —n— hori ezabaturik egotea.

⁸⁰ E-an «brrien».

⁸¹ E-an «veron», baina paragrafo honetan bertan «verorren» bi aldiz.

⁸² E-an guzti.

⁸³ E-an aimbés.

⁸⁴ E-an gueiya.

⁸⁵ Sermoia bukatu, eta nork, non eta noiz egin eta predikatu zuen adierazten da orrialde ber-tan.

Este mismo Predico d(ic)ho Fr. Miguel en Lequeitio 2^{do}. Domingo de Quaresma ala tarde con la doctrina del Dolor del miserere del año de 1779. año de 1788.

Este mismo Predico d(ic)ho Fr. Miguel en Lequeitio Dominica 5^a. de Quaresma año 1789.

Predico d(ic)ho Fr. Miguel en Lequeitio con un ejemplo del Pres(iden)te de Sem(ina)rio de Calab(orr)a⁸⁶, y la Doctrina la Confesion de voca año de 1790.

Predico d(ic)ho P(adr)e en Mundaca en Quaresma año de 1791.

Predico d(ic)ho P(adr)e en Lequeitio Dom(inic)a 4^{ta}. de Quar(es)ma con la doct(rin)a del dolor 30 de Marzo de 1794.

Predicò d(ic)ho P(adr)e en Marquina con la doct(rin)a del Pecado venial, y sus daños en el Dominica 5^{ta}. de Quaresma del año de 1795.

Predicó d(ic)ho P(adr)e en Mundaca con la doct(rin)a del dolor Dom(ing)o 4^o. de Quar(es)ma año 1805.

Di para copiar à Fr. N. año 1807.

Ejemplo⁸⁷ de los 2 Angeles, y los Demonios con sus libros de otro sermon. 1779 (sic 1779).

⁸⁶ *Presidente de Seminario de Calaborra* irakurtzen dugu.

⁸⁷ Azkeneko berri hau orrialde bazterrean ematen zaigu. Uste dugunez, Mundakan 1805. urtean predikatu zuenarekin zer ikustekorik izan dezake paragrafo horrek, horren parean hasten bait da, bazeukala lekurik azken sarreraren ondotik —«Di para copiar à Fr. N. año 1807» —ipintzeko.

HIZTEGIA

A

- AAR/AR (i.) 'har'. *aar*, 1,6; *ar*, 1,3.
 ADITU (a.) 'ulertu'. *adietan emon*, 1,1.
 ALA/ALAN (ad.) 'hala'. *ala*, 1,6; *alan*, 1,7.
 ALDE (i.) *alde eguin* 'aldendu', 1,4.
 ALKAR (io.) *alcar joteebeela*, 1,4.
 AMAITU (a.) 'bukatu'. *amaitu jacon*, 1,3.
 AMODIYO (i.) 'maitasun'. *amodiyo*, 1,7.
 ANDIKI (i.) 'haundiki'. *Erreñuco andiquiyac*, 1,3.
 ANGERU (i.) 'aingeru'. *Anguerubagaz*, 1,3.
 AO (i.) 'aho'. *Isaias profeta Santuben aoti*, 1,1.
 ARANZA (i.) 'arantza, spina'. *aranza gogorra*, 1,3.
 ARERIYO (i.) 'etsai'. *areriyo andibat*, 1,5.
 ARIK ETA (—) *aric eta eldu artian*, 1,6.
 ARIMA (i.) *arimia*, 1,2; *arimaan*, 1,6.
 ARNASA (i.) 'hats'. *azquenengo arnasia emonartian*, 1,5.
 —ARREN (atz.) 'ba...ere'. *ofendidu arren...*, *alambere*, 1,3.
 ARTEZ (adj.) 'zuzen'. *zuzen, da artetz*, 1,5.
 ARTU (a.) 'hartu'. *artu emonetan*, 1,2.
 ASERRATU (a.) 'asaldatu'. *aserraturic*, 1,5.
 ASKO (d.) 'anitz'. *lagun asco daucaz*, 1,6; *christinau ascoc eguitendau*, 1,6.
 ASMU (i.) 'asmo'. *Demoninuen asmu guextoric*, 1,8.
 ATERA (a.) *provechu atera*, 1,2.
 ATSAKABA (i.) 'nahigabe'. *atsacaba*, 1,3.
 AURKITU (a.) 'ediren'. *aurquituteco*, 1,1.
 AZARTU (a.) 'ausartu'. *Azartuten da*, 1,4.
 AZUR (i.) 'hezur'. *gorpuzeco azur guztiyac*, 1,4.

B

- BAGA (p.) 'gabe'. *acusau бага*, 1,4; *bagaric*, 1,3; *baric*, 1,7. Cf. «parebaguecoa», 1,4.
 BAKE (i.) *baquian ichico*, 1,5.
 BALZITU (a.) 'belztu'. *balcitzuz*, 1,6.
 BARRI (adj.) 'berri'. *barrien barri asicodala*, 1,5.
 BERE (ad.) 'ere'. *zurezat bere bago erremedioa*, 1,3.
 BIRRETAN (ad.) 'bi aldiz'. *vein, virretan, da irubider*, 1,1.
 BIZI DENPORA (i.) 'bizialdi'. *zeure vici dempora*, 1,3.

D

- DEUNGA (adj.) 'gaizto'. *pensamentu deunga*, 1,2.

E

- ELEXA (i.) 'eliza'. *elexa onetan*, 1,7; *elessaco*, 1,2.
 EMON (a.) 'eman'. *lecu emon*, 1,3.
 ERAKUSLE (i.) 'doktore'. *Elessaco Eracusle andiyac*, 1,2.
 ERITXI (a.) 'uste izan, irudi'. *derichat*, 1,1; *derichazu*, 1,4.
 ERRAZ/ERREZ (adj.) 'aise'. *chito erraz*, 1,2; *gauza erreza*, 1,1.
 ERRAZOE (i.) 'arrazoi'. *errazoe ascogaz*, 1,6; *uso errazoeco demporan*, 1,2.
 ERREÑU (i.) 'erreinu'. *Erreñuco andiquiyac*, 1,3.
 ERUAN (a.) 'eraman; ohi izan'. *Noc eruango eban (?)*, 1,7; *ascotan eguindaruadaz*
 'egin ohi ditut', 1,1.
 ETE (ad.) 'ote'. *eguietecenduban*, 1,2.
 —EZ (atz.) 'edo ez'. *ez tago zetan ibili...: gueratu ete yacanez pecatuben bat...,*
eguieteban, edo ez examina concienciacoa, 1,2.
 EZE (j.) 'eze'. *S(a)n Geronimo Andiyac diño, ece Aranza au dala*, 1,4.
 EZPADA (j.) 'baizik eta'. *Ezta bada beste gauzaric...*, *ezpada*, 1,1.

G

- GAN (i.) 'gain'. *onez ganeti*, 1,4; *Oñez (sic —ñ—) gañeti*, 1,2.
 GARBATU (a.) 'damutu'. *garbatuta gagoz*, 1,8.
 GATX (adj.) 'zail'. *aterateco gachac*, 1,2.
 GEXTO (adj.) 'gaizto'. *asmu guestoa (sic —s—)*, 1,4; *Judas guextoari*, 1,7.
 GITXI (d.) 'gutxi'. *guichibat gora bera*, 1,1; *guichien ustedavenian*, 1,5.
 GORPUZ (i.) 'gorputz'. *gorpuzeco juntura*, 1,4.
 GURA IZAN (a.) 'nahi izan'. *viciguradau*, 1,5; *adietan emonguradentsedana*, 1,3.

I

- IFINI (a.) 'ipini'. *ifintendau*, 1,4. Ik. IPINI.
 ILABI (i.) 'hil, hilabete'. *ilabiric ilabira confesetandanac*, 1,2. Bigarren sermoian
ilabetian aurkitu dugu.
 ILINTI (i.) 'ileti'. *infernuco ilinti*, 1,3.
 IPINI (a.) 'ibeni, imini'. *ipinidozuna*, 1,4. Ik. IFINI.
 ITANDU (a.) 'galdetu'. *itandutendentso... eta eranzungo deutso*, 1,1.
 ITXARAON (a.) 'itxaron, zain egon'. *icharaom (sic —ao—) deutscu*, 1,7.
 ITXI (a.) 'utzi'. *ichi Jangoicoen escubetan*, 1,2; *ixten*, 1,6.

J

- JAGI (a.) 'jaiki'. *zure contra jaguico dala*, 1,5.
 JANGOIKO (i.) 'Jaungoiko, Jainko'. *bere Jangoico maitia*, 1,3.
 JARLEKU (i.) 'erretaulki, tronu'. *vere jarleczuzat arturic*, 1,3.
 JAUSI (a.) 'jaitsi'. *jausicodala infernuco ondarretara*, 1,5.
 JAZO (a.) 'gertatu'. *jazozala*, 1,4; *jazojacola*, 1,4.

K

- KATEA (i.) 'catena'. *catea gogorrez*, 1,5.
 KRISTINAU (i.) 'kristau, girstino'. *christinau galdubac*, 1,1.
 KRUBEL (adj.) 'izugarri; anker'. *pena estuba, ta crubela*, 1,3; *pixtiya crubelbat*, 1,4.
 KRUZE (i.) 'gurutze'. *cruceco pena*, 1,8.

L

- LAGUNTASUN (i.) 'laguntza'. *Jesus onaren laguntasuna*, 1,4.
 LEGEZ (j.) 'bezala'. *esaten deuscumleguez*, 1,7.
 LOO (i.) *loo gogorric*, 1,6.
 LORA (i.) 'lore'. *lora, orri, ta arbolaa*, 1,6.
 LOTSA (i.) 'errespetu, itzal'. *lotsia, edo errespetua galdu deutsen edo ez*, 1,2.

M

- MADALENA (i.) *Madalena pecatariyari*, 1,7.
 MAESU (i.) 'maisu, maistru'. *Maesu Divinoa*, 1,7.

N

- NAI IZAN (a.) 'gura izan'. *egon naidau, viciguradan*, 1,5; *Naiyago dave*, 1,5.
 NOLA (ad.; j.) *ezauteban nola amaitu jacon*, 1,3; *nola...*, *alan*, 1,7. N.B. Ez dugu aurkitu *zelan* sermoi honetan, bai ordea hurrengoetan.
 NOSICPEIN (ad.) 'noizik behin'. *nosicpein, banacatan*, 1,1.

O

- OGIPEE (i.) 'ogipide'. *euren (ugazabeen) oguipiean (sic —pie—) dagozanai*, 1.
 OPA IZAN (a.) 'eskaini'. *Opa deuscu Diabrubac gusto loibat*, 1,4.
 ORATU (a.) 'itsatsi, eutsi'. *vivotzari oraturic*, 1,5. *Latinez, haesit dio*.

P

- PARKA (i.) 'barkazio'. *parca escatutera*, 1,7.
 PIXTIYA (i.) 'basabere'. *pixtiya crubelbat*, 1,4; *pixtiya galduban*, 1,5.
 PLAZA (i.) *dala echian, dala plazaan, dala vidian, dala maiyan*, 1,5.
 PRETAU (a.) 'prest egon'. *Prestauric zengozan*, 1,3; *prestaucos gara*, 1,5.

U

- UGAZABA (i.) 'nagusi'. *Ugazabaac, eta gurasoac*, 1,2.
 URREGORRI (i.) 'urre'. *urregorric baso sagradubac*, 1,3.
 URTEN (a.) 'irten, atera'. *urtendaiyan becatari (sic b—) tristiciac*, 1,3.

Z

- ZE (j.) *diño ce*, 1,7; *ain zala andiya; ce... diño*, 1,3; *Ce ciertu esatendentsat*, 1,3.

ZEINBAT (d.) 'zenbat'. *zeinbat bider?*, 1,1.

ZERREN (j.) '—lako, quia'. *Cerren bazuc biardabe dempora gueiyago*, 1,1.

ZIRAR (i.) 'zilar'. *zirarezco... baso sagradubac*, 1,3.

ADIZKIAK

B

BALIZ 'balitz'. *sartubaliz*, 1,4.

D

DA 'da'. *bada*, 1,1; *dan*, 1,1; *dala*, 1,1.

DABE 'dute'. *biardabe*, 1,1; *davela*, 1,1.

DAGO 'dago'. *dago*, 1,3; *dagoan*, 1,6; *daguala*, 1,5; *ez tago*, 1,2.

DAGOZ 'daude'. *dagoz*, 1,1; *dagozana*, 1,5.

DAIYAN 'dezan'. *urtendaiyan*, 1,3.

DAIYEN 'dezaten'. *emondaiyela*, 1,6.

DAIGUN 'dezagun'. *aldaigun moduban*, 1,3.

DAIGUZAN 'ditzagun'. *cumplidu daiguzan*, 1,5.

DAKIDAN 'dakidan'. *gueratu eztaquidan*, 1,1.

DAKIT 'dakit'. *eztaquit 'nescio'*, 1,1.

1 DAKIZU 'dakizu'. *eztaquizu 'nescis'*, 1,1.

2 DAKIZU 'dakizue'. *daquizula*, 1,1; *Eztaquizu*, 1,1.

DARABIL 'darabil'. *daravillenac*, 1,2.

DARUADAZ 'daroatzat'. *eguindarnadaz 'egin ohi ditut'*, 1,1.

DARUAGU 'daroagu'. *nolacoa ipini darnagun 'ipini ohi dugun'*, 1,1.

DATOR 'dator'. *dator*, 1,1.

DAU 'du'. *viardau*, 1,1; *daven*, 1,1.

DAUKA 'dauka'. *daukan*, 1,2; *daucala*, 1,5; *eztaucanac*, 1,2.

DAUKAGU 'daukagu'. *daucagun*, 1,1.

DAUKAZ 'dauzka'. *daucaz*, 1,6; *daucazan*, 1,2.

DAUKAZU 'daukazu'. *daucazu*, 1,7; *daucazuna*, 1,4.

DAUKO 'dauka'. *dauco*, 1,4; *eztauco*, 1,3.

DEIYOGUN 'ieziaiogun'. *escatudeiyogun*, 1,3.

DEIYON 'diezaion'. *arguitudeiyola*, 1,1.

DEITIAN 'daitezen'. *vicideitiala*, 1,6.

DEIYUEEN 'diezaien'. *emondeiyueela*, 1,6.

DERITXAT 'deritzat'. *derichat*, 1,5.

1 DERITXAZU 'deritzazu'. *derichazu*, 1,1.

2 DERITXAZU 'deritzazue'. *derichazu*, 1,1.

DEUSKU 'digu'. *Opa deuscu*, 1,4.

DEUSKUBE 'digute'. *deuscubenac*, 1,2.

DEUSKUZ 'dizkigu'. *deuscuz*, 1,6.

DEUST 'dit'. *deust*, 1,2.

DEUTSAGU 'diogu'. *deutsagula*, 1,3.

DEUTSAT 'diot'. *dentsat*, 1,3.

DEUTSAZU 'diozu'. *deutsazu*, 1,7.

DEUTSE 'die'. *deutse*, 1,1; *deutsen*, 1,2. Behin «deuseena», —t— gabe eta —ee— duela.

DEUTSET 'diet'. *deutsedana*, 1,3.
 DEUTSEZU 'diezu'. *deutsezula*, 1,3.
 DEUTSO 'dio'. *deutso*, 1,1; *deutsana*, 1,5; *ezteutsala*, 1,5.
 DEUTSU 'dizu'. *deutsuna*, 1,5.
 DEUTSUT 'dizuet'. *emanguradeutsudan*, 1,1; *adietan emon biardeutsut*, 1,2.
 DIÑO 'dio'. *diño*, 1,1.
 DIRA 'dira'. *dira*, 1,2; *dirian*, 1,7; *diriala*, 1,1.
 DITU 'ditu'. *dituban*, 1,1.
 DITUBE 'dituzte'. *dituvela*, 1,2.
 DITUBEZ 'dituzte'. *ditubez*, 1,1.
 DITUZ 'ditu'. *dituz*, 1,1; *dituzala*, 1,2.
 DODAZ 'ditut'. *dodaz*, 1,1; *dodazan*, 1,1.
 DOGU 'dugu'. *dogu*, 1,1; *dogula*, 1,1.
 DOT 'dut'. *dot*, 1,1; *dodana*, 1,1.
 1 DOZU 'duzu'. *naiyago dozu*, 1,7.
 2 DOZU 'duzue'. *vstedozu neure christinau devotoac*, 1,7.
 DOZUZ 'dituzu'. *dozuz*, 1,3; *dozuzan*, 1,1.
 DUA 'doa'. *dua*, 1,4.

E

EBAN 'zuen'. *egueiban*, 1,1; *ebala*1,3.
 EBEEN 'zuten'. *eben*1,3; *ebela*, 1,4; *ebeela* (sic —ee—), 1,4.
 EGOZAN 'zeuden'. *egozan*, 1,3.
 EGUAN 'zegen'. *eguan*, 1,6.
 EJYEZAN 'zitzaten'. *ateraejyezala*, 1,3.
 EIKEZU 'ezazu'. *eguín eiquezu*1,5.
 EUKAN 'zeukan'. *eucan*, 1,3.
 EUKAZAN 'zeuzkan'. *eucazala*, 1,7.
 EUTSAN 'zion'. *ichientsan*, 1,3.
 EUTSAZAN 'zizkion'. *emoteutsazan*; 1,7; *emoteeutsazanian*, 1,6.
 EUTSEN 'zioten'. *esateutsen*, 1,4; *estututeutsela*, 1,4.

G

GAGOZ 'gaude'. *gagoz*, 1,8; *gagozala*, 1,5.
 GAITIAN 'gaitezen'. *gaitiala*, 1,5.
 GAITU 'gaitu'. *gaitu*, 1,6.
 GAIZAN 'gaitzan'. *ezcaizan*, 1,6.
 GARA 'gara'. *gara*, 1,5; *garialaco*, 1,8.
 'GO 'dago'. *bago erremedioa*, 1,3.
 GUAZAN 'goazen'. *guazan*, 1,6.

I - Y - J

- YAKAN 'zitzaion'. *yacanez*, 1,2.
 JAKE 'zaie'. *astenjaque*, 1,6.
 YAKO 'zaio'. *jacola*, 1,5; *yacanez*, 1,2.
 JAKON 'zitzaion'. *asijacon*, 1,6; *jazojacola*, 1,4.
 'IDAZU 'iezadazu'. *esaidazu*, 1,1.
 'IZU 'ezazu'. *erregutuizu*, 1,5.

K

- 'KIZU 'dakizu'. *baquizu* 'badakizu', 1,3.

L

- 1 LEI 'lezake' (?). *atormentauleiyala*, 1,6.
 2 LEI 'liteke'. *ecin señalauley*, 1,1.
 LEIYO 'liezaioke'. *emoleiy*, 1,4.
 LEITEKEZ 'litezke'. *egon leitequezala*, 1,7.
 LEIZ 'litezke'. *eguleiz*, 1,2.
 LEUKEZ 'luke' (?). *irazartu nai leuquez*, 1,6.

N

- NAS 'naiz'. *vicinasala*, 1,3.
 NEIYO 'niezaioke'. *ezin esaneiyo*, 1,3.
 NEITEKE 'ninteke'. *ezin confesauneteque*, 1,2.
 NEIZ 'nitzake'. *Ezin adietan emoneiz*, 1,2.
 NOA 'noa'. *elexara noianian*, 1,1. *Ik. DUA eta ZUAZ.*

T

- 'TOS 'datoz'. *Vatos... aurquitutera?*, 1,5.

Z

- ZAGOZ 'zaude'. *zagozana*, 1,4.
 ZAITIAN 'zaitzen'. *zaitiala*, 1,4.
 ZAITU 'zaitu'. *zaitubana*, 1,5.
 ZAIZAN 'zaitzan'. *zaizan*, 1,5.
 ZAN 'zen'. *zan*, 1,2; *zala*, 1,3.
 1 ZARA 'zara'. *zu zara*, 1,4. *ezabatua borra*
 2 ZARA 'zarete'. *confesetanzarianac*, 1,1.
 ZATOS 'zatoz'. *bazatoz*, 1,3.
 ZENDUBAN 'zenuen'. *cenduban*, 1,2.
 ZENGOZAN 'zeunden'. *Prestauric zengozan*, 1,3.
 ZINAI 'zenezake'. *ecarricinai*, 1,3.
 ZINIAN 'zinen'. *asicinian*, 1,3.

ZIRIAN 'ziren'. *asicirian*, 1,4.

ZITUBAN 'zituen'. *cituban*, 1,4.

ZITUBEN 'zituzten'. *cituben*, 1,4.

ZITUZAN 'zituen'. *cituzanac*, 1,4. Ik. ZITUBAN.

ZUAZ 'zoaz'. *zuaz*, 1,7; *Zuazanian*, 1,5.